

BIZTANLERIA ETA ETXEBIZITZA ZENTSUAK. Etxebizitzak, 2001. urtea


1996 eta 2001 urteen artean 11.600 etxebizitza gehiago egon da urtean

Etxebizitzaren %10,2 hutsik egon dira; ehuneko hori autonomia erkidego guztietako txikiena izan da, eta Estatu osoko ehunekoa baino 3,8 puntu txikiagoa izan da.

1991 eta 2001 urteen artean Euskal Autonomia Erkidegoan 104.240 etxebizitza gehiago egon dira; izan ere, eta EUSTATen datuen arabera, 1991 eta 1996 bitartean urtean 9,272 etxebizitza gehiago egon da eta 1996 eta 2001 bitartean hazkunde hori areagotu egin da, urtean 11.576 etxebizitza gehiago egon direlako.

1991 eta 2001 urteen artean EAE osoan izan den hazkundearen %45,1 Gipuzkoan eman da, Bizkaian %38,9 eta gainerako %16 Araban.

Etxebizitzaren parkearen hazkundera, lurralde historiko eta eskualdeen arabera. 1991-2001. %.



Iturria: Eustat

Espazioaren arabera, egoitzen parkearen bilakaerak bizitasun ezberdinak izan ditu. Hain zuzen, eskualde batzuek hazkunde handia izan dute: Vitoria-Gasteiz (%32,8 Gorteia inguruko mendietan eta %17,1 Arabako haranetan), Donostia-San Sebastianek (%29,9 Urola Kostan eta %22,5 Bidasoa Behean) eta Bilbok (%20,6 Plentzia-Mungian eta %16,2 Durangaldean).

Bestalde, Markina-Ondarroa eta Bilbo Handia izan dira etxebizitza kopurua gutxien gehitu duten eskualdeak, 10 urtetan %8ko hazkunde baina ez dute izan eta.

Donostia-San Sebastian izan da azken 10 urteotan egoitzen parkea gehien handitu duen hiriburua; %17,3 hazi da.

1991 eta 2001 urteen artean Donostia-San Sebastian izan da gehien hazi den hiriburua, %17,3ko hazkundearekin (11.429 famili etxebizitza gehiago); gero Vitoria-Gasteiz %16ko hazkundearekin (11.990 etxebizitza gehiago) eta, azkenik, Bilbo da hiru hiriburuon artean hazkunde txikiena izan duena %6,6ko hazkundearekin (9.106 etxebizitza gehiago).

Udalerrika, Irun da hazkunde handiena izan duena (3.699 etxebizitza gehiago), gero Zarautz (3.361 gehiago) eta Eibar (2.525 gehiago).

Zentsua egin zenean 83.604 etxebizitza hutsik zeuden, %10,2; tasa hori autonomia erkidego guztien artean txikiena izan da.

Zentsua egin zenean etxebizitzek zein erabilera zuten kontuan hartuta aztertzen bada etxebizitzaren parkea, 2001. urtean etxebizitza guztien %85,1 ohiko etxebizitzarako erabiltzen zela ikusiko da, hau da, 1996. urtean baino ia 2 portzentaje-puntu gehiago eta 1991. urtean baino ia 3,8 gehiago. Etxebizitzaren zentsu osotik %10,2 hutsik daude (83.604) edo aldizkako erabilerak dituzte (5.541), eta %4,7 bigarren etxebizitzak dira. Azken hauek %4,5 hasi dira 10 urtetan, 1.809 etxebizitza gehiago baitaude.

Arabara dago etxebizitza hutsen portzentaje txikiena: guztirakoaren %8,4; gero Bizkaia %9,9arekin eta azkenik Gipuzkoa %11,3arekin. Halaber, Araba izan da bere egoitzen parkea gehien optimizatu duen lurraldea: etxebizitza hutsen tasa 5,1 portzentaje-puntu murriztu du. Bizkaia 3,4 murriztu du tasa hori eta Gipuzkoa 2,9.

Bilakaera horren ondorioz Espainiako autonomia erkidego guztien artean erabilera-tasa handieneko parkea daukagu; izan ere, Estatuan zazpi etxebizitzetatik bat hutsik dago (%14) eta EAEn hamar etxebizitzetatik bat. Etxebizitza hutsen tasa txikienak dituzten beste autonomia batzuk Ceuta (%11,2arekin), Madrilgo erkidegoa (%11,7arekin) eta Aragoi (%12,5arekin) dira. Ceuta eta Melilla kenduta, bigarren etxebizitzaren portzentaje txikiena duen erkidegoa ere bada: etxebizitza mota horietako gutxien dituzten erkidegoen (Asturias %93 eta Madril %9,8) portzentajearen erdia du.

EAEko familien %17,3ak bigarren egoitza bat du; horien %73ak EAEtik kanpo du bigarren egoitza eta azken hauetatik 1.225 familiak atzerrian. EAEko bigarren etxebizitzaren %14,3 Erkidegokoak ez diren egoiliarrek betetzen dituzte.

EAEko familien %17,3ak bigarren etxebizitza bat dauka (129.449 familiak), baina etxebizitza horietako %27 bakarrik dago EAEn. 1.225 familiak atzerrian du bigarren egoitza; familia horietako erdia gipuzkoarra da eta Frantzia du bigarren etxebizitza. EAEko bigarren etxebizitzaren %14,3 Erkidegokoak ez diren egoiliarrek erabiltzen dituzte.

1991tik 2001. urtera bitartean, etxebizitza bakarreko 12.263 eraikin gehiago kontabilizatu dira, denboraldi horretan etxebizitza guztiek izan duten hazkundearen %11,8 suposatzen duena; era berean, etxebizitza biko 4.297 eraikin kontabilizatu dira. Alabaina, oraindik 3-10 etxebizitza dituzten eraikinak dira nagusi (parke osoaren %30,6), baita 11-20 etxebizitza dituztenak ere (%30,9).

EAEko batez besteko etxebizitzaren antzinatasuna 35,3 urtekoa da eta azalera erabilgarria 85,8 metro karratukoa.

Parkearen batez besteko antzinatasuna 35,3 urte ingurukoa da: Araban 30,9 urtekoa, Gipuzkoan 35,6koa eta Bizkaian 36,3koa.

Famili etxebizitzaren batez besteko azalera erabilgarria 85,8 metro karratukoa da; izan ere, azken 10 urteotan metro bat eta zerbait gehiago gehitu da azalera hori. Araban daude etxebizitza handienak, batez beste 90,2 metro karratu baititu; Gipuzkoak, ordea, 86 metro karratuko azalera du batez beste eta Bizkaia 84,5.

Sopelana, Berango, Irura, Getxo eta Elorrioren daude Erkidegoko osoarekin erkatuta erosotasun-indize handiena duten etxebizitzak.

Arabako etxebizitzek dute (100etik 74,7 punturekin) erosotasun-indize handiena; horrela, eraikitzean etxebizitzaren egitura (azalera, antzinatasuna, gela eta bainugela kopurua) eta horren ekipamenduak (gasa hodi bidez, telefono finkoa, e.a.) hartzen dira kontuan. Arabakoaren atzetik Gipuzkoako etxebizitzek dute erosotasun-indize handiena (71,4 punturekin) eta azkenik Bizkaikoek (69,1 punturekin).

Etxebizitza erosoena Sopelanan daude (82,8ko erosotasun-indizearekin) eta gero Berangon (81eko indizearekin), Iruran (78,7ko indizearekin), Getxon (77,8ko indizearekin) eta Elorrioren (77,4ko indizearekin). Hiriburuen artean Vitoria-Gasteizek du puntuaziorik altuena (76,8), gero Donostia-San Sebastianek (74,1) eta azkenik Bilbok (70,1).

2001. urteko zentsuan egiaztatu bezala, gasak garrantzi izugarri izan du berogailuko erregai moduan: 1991. urtean, berogailua zuten etxebizitzek %18,7ak bakarrik zuen erregai hori, 2001. urtean, ordea, portzentaje hori %51,1koa izan da (371.046 etxebizitza). Aitzitik, elektrizitatea %57,2tik %31,6ra igaro da 2001. urtean. 19.384 etxebizitzetan ikatza eta horren eratorriak kendu dira, baina oraindik 4.203 etxebizitzatan erabiltzen jarraituko da.

Alokairuko etxebizitzaren portzentajeak 2,9 puntu galdu ditu 10 urtetan; egoitzen parkearen %7 izanik.

Famili etxebizitzaren artean 10etik ia 9 (%89,5) egoiliarrenak dira, baina herenak baino zerbait gehiagok oraindik etxebizitza ordaintzen jarraitzen du. Azken horien taldea sei portzentaje-puntu gehiago hazi da 1991 eta 2001 urteen artean. 2001. urteko azkenaldian alokairuen parkea 52.448 etxebizitzara gehitu da (guztirakoaren %7). Hamar urte lehenago 62.395 etxebizitza zeuden egoera horretan, hau da, parkearen %9,9.

Gipuzkoan izan da beherapen hori nabarmenagoa; lurralde honetan alokairuko parkea %12koa zen 1991. urtean baina egun %7,8koa da. Bizkaia 2,5 portzentaje-puntu galdu ditu, %6,8ra iristeraino. Horrela, Araban izan da beherapen txikiena (1,5

portzentaje-puntu), baina bai lehen eta bai 2001. urtean ere parke txikiena izaten jarraitzen du, %6,1.

Etxebizitzen %30,9ak kanpoko zaraten arazoak ditu hurbilean

EAEko etxebizitza gehienengatik ingurumen-arazoak kanpoko zarategatik ematen dira. Kasu horien %30,9 inguruko garbitasun ezagatik sortzen da, %23,3 eta bostetik batek (%19) kutsadura motaren bat du. EAEko etxebizitzaren %5,5ak (41.510 etxebizitzak) hiru arazo horiek aldi berean ditu. Aitzitik, erdiak bakarrik (%52,2) ez du arazo horietako bat ere. Aipatu hiru arazoak dituzten etxebizitzaren portzentaje handiena Bizkaikoa da (etxebizitzaren %6,9); Araba eta Gipuzkoan gutxi gorabehera etxebizitzaren %4ak ditu arazo horiek.

Ortuellako etxebizitzaren %19,7ak zaratak, kutsadura eta zikintasuna ditu inguruan; haxe da arazo horiek dituzten inguruneetatik portzentaje handiena duen udalerria. Gero Pasaia (%15,2) eta Barakaldo (%14,5) daude. Pasaian San Juan Ensanche eta San Pedro Azkuene dira auzorik kaltetuenak, %21,9 eta %15,9 etxebizitza ukituta hurrenez hurren. Barakaldon, ingurumenari dagokionez arazo handienak dituzten auzoak Lutzana (%35,3 etxebizitza kaltetuta), Burtzeña (%35,1) eta El Regato (%30,3) dira.

Bilbok ere erkidegoko batez bestekoa gainditzen du, %7,7arekin. Bilbon, hain zuzen, jarraian ematen diren auzoetan ikus daitezke ingurumenaren gaineko aipatu hiru arazo horiek: Erriberako etxebizitzaren %34an, Bilbo Zaharreko etxebizitzaren %24,1n eta San Frantziskoko %20,2an.

Erkidegoan hiru arazoak dituzten 215 udalerriko etxebizitzaren %5,5etik beherako batez bestekoa dute, gainerako 35ek batez besteko hori gainditzen dute.

Auzokoen %28,5ak berdegune gehiago nahi ditu etxebizitzaren inguruan

Erkidegoko etxebizitzaren %11,9ko auzokoek komunikazio txarrak dituztela uste dute, horietako %28,5ak berdegune gehiago nahi ditu eta %13,1k bere inguruan delinkuentzia ugari dagoela pentsatzen du. Guztirakoaren %1,3ak, gutxi gorabehera 9.506 etxebizitzak, hiru arazoak ditu.

Bizkaitarrak dira berdegune gehiago eskatzen dituztenak (%34,8), gero arabarrak (%10,5) eta gipuzkoarrak (%25,6). Azken hauek, gainera, delinkuentzia gutxiago jasaten dute (%9,3); bizkaitarrek, ordea, %15,5 eta arabarrek (%13,3).

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Jesús Rodríguez Marcos

Tlf:+34-945-01 75 31 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp